




# AZTERKETA

## EAEko kultura Eremuko Enpresen eta Enpleguen Analisia

2010



# Aurkibidea

<b>Sarrera</b>		<b>3</b>
<b>1.</b>	<b>KULTURA ENPRESA ETA ENPLEGUEI BURUZKO ADIERAZLEAK EAEN 2010</b>	<b>4</b>
<b>2.</b>	<b>EAEKO ENPRESA ETA ENPLEGUAREN BILAKAERAREN AZTERKETA 2009-2010</b>	<b>6</b>
<b>3.</b>	<b>ADIERAZLEEN SINTESIA</b>	<b>10</b>
<b>4.</b>	<b>Eranskina. Ohar metodologikoak</b>	<b>12</b>

## SARRERA

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) EAEko Kultura Eremuko Enpresa, Enplegu eta Lan Merkatuari buruzko lehenengo txostena argitaratu zuen iaz. Helburua, gure lurraldean kultura-jarduerak duen garrantzia kokatzea zen. Lehenengo txosten horrek, informazio iturri eta gai honi buruzko datuak eskaintzen dituzten eragiketa estatistiko nagusiak identifikatzeko eta balioztatzeko erreferentzia gisa balio izan du.

Aurten, kulturaren enpresa eta enpleguei buruz 2009 eta 2010. urtetan eskura dagoen informazioaren eguneratzea aurkezten da. Erabili diren datuak, azterketa eta garapen maila ezberdinak baina osagarriak barne hartzen dituzten informazio iturri eta eragiketa estatistiko ezberdinetatik atera dira, eta horiei esker aztergaiaren irudi zehatza eskaini ahal izan da.

Zentzu horretan, EUSTAT-ek eskainitako datuekin lan egin da, nagusiki Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendarekin (EJGID); horrek, kultura eremuko enpresa-ehundura eta horren bilakaera ezagutzea eta gainerako sektore ekonomikoekin alderaketa egitea ahalbidetu du. Bestalde, Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioak Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) bitartez enpleguari buruz eskaintzen duen informazioa erabili da.

Bigarren txosten honen bitartez, EAEko kultura enpresa eta enpleguaren joera eta errealitateari buruzko azterketan sakondu da, sektorea indartzeko intereseko interpretazioak eskuratu.

## 1. KULTURA ENPRESA ETA ENPLEGUEI BURUZKO ADIERAZLEAK EAEN 2010

### 1. irudia. Kultura-enpresen adierazleen laburpena. 2010

Adierazleak	
Enpresak, guztira (EAEko sektore ekonomiko guztiak)	167.270
Kultura eremuko enpresak, guztira	6.089
Kultura-eremuko enpresen %-a enpresen guztirakoarekiko	3,6
Enpresak/ 100.000 biztanle ratioa	281

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.

### 2. irudia. Kultura-enpresen adierazleak Lurralde Historikoen arabera. 2010

Lurralde Historikoa	Lurralde-banaketa		Kultura enpresak/100.000 bizt. ratioa	Kultura-enpresen %-a enpresen guztirakoarekiko
	Zenbaki absolutua	%		
Araba	668	11,0	211	3,2
Bizkaia	3.128	51,4	272	3,6
Gipuzkoa	2.293	37,7	327	3,9
<b>EAE</b>	<b>6.089</b>	<b>100,0</b>	<b>281</b>	<b>3,6</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.

### 3. irudia. Kultura eremuko jarduera ekonomikoak dituzten enpresen banaketa, jarduera nagusiaren arabera eta guztirakoarekiko %-a. 2010

Jarduera ekonomikoa	Zenbaki absolutua	%
Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jarduerak	1.893	31,1
Kultura-produktuen merkataritza	1.434	23,6
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	946	15,5
Zinemako, bideo, irratiko eta telebista saioretako jarduerak eta musika edizioak	716	11,8
Argazkilaritzako jarduerak	474	7,8
Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze jarduerak batzuk	359	5,9
Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduerak batzuk	142	2,3
Berri agentzien jarduerak	110	1,8
Soinu eta irudiko euskarri eta aparatuak eta musika tresnak egitea	15	0,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.089</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT. Jarduera ekonomikoen sailkapena EJSN-2009-ren arabera.

**4. irudia.** Kultura-enpresen kopurua jarduera ekonomiko nagusia eta Lurralde Historikoen arabera. 2010

Kultura-jarduerak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jarduerak	221	959	713
Kultura-produktuen merkataritza	138	783	513
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa	107	499	340
Zinemako, bideo, irratiko eta telebista saioetako jarduerak eta musika edizioak	67	317	332
Argazkilaritzako jarduerak	55	248	171
Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze jarduerak batzuk	44	175	140
Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduerak batzuk	29	51	62
Berri agentzien jarduerak	4	90	16
Soinu eta irudiko euskarri eta aparatuak eta musika tresnak egitea	3	6	6
<b>KULTURA SEKTOREA GUZTIRA</b>	<b>668</b>	<b>3.128</b>	<b>2.293</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT. Jarduera ekonomikoen sailkapena EJSN-2009-ren arabera.

**5. irudia.** Kultura-establezimenduen adierazleen laburpena. 2010

Adierazleak	
Establezimenduak, guztira (EAEko sektore ekonomiko guztiak)	191.057
Kultura eremuko establezimenduak, guztira	6.760
Kultura-eremuko establezimenduen %-a establezimenduen guztirakoarekiko	3,5
Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (sektore guztiak)	1,14
Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (kultura-eremua)	1,11

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.

**6. irudia.** Kultura-establezimenduen banaketa enplegu-bolumenaren arabera. 2010

Enplegu-bolumenaren araberako sailkapena	Kultura-establezimenduak	
	Zenbaki absolutua	%
0-2 enplegu	5.448	80,6
Mikroenpresa (3-9 enplegu)	975	14,4
Enpresa txikia (10-49 enplegu)	307	4,6
Enpresa ertaina eta enpresa handia (+50 enplegu)	30	0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.760</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.

**7. irudia.** Enplegua kultura-enpresetan eta gainerako jarduera ekonomikoetan EAEn 2010

Adierazleak	
Kultura-eremuko enpleguak, guztira (Urteko batezbestekoa)	25.500
Enpleguak, guztira (sektore guztiak)	938.800
Kultura-eremuko enpleguaren %-a/gainerako jarduerak	2,7

Iturria: Kultura-enplegua: BAI-ren ustiapena, urte bakoitzeko bigarren hiru hilekoko datuak eta urteko batezbesteko datuak, Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa.

## 2. EAEKO ENPRESA ETA ENPLEGUAREN BILAKAERAREN AZTERKETA 2009-2010

**Kultura eremuko enpresa-ehundurak bestelako sektoreek baino hobeto eusten die krisi ekonomikoaren erasoari EAEn.**

2010. urtean, JEGID-ren arabera, EAEko kultura eremuko enpresa-ehundura 6.089 enpresek osatzen dute, hau da, EAEn dauden enpresa guztien % 3,6. 100.000 biztanle multzo bakoitzeko, kultura eremuko 281 enpresa daude.

EAEko enpresa-ehundurari buruzko datuen azterketak, sektore ekonomiko guztiekiko enpresa kopuruak jasandako jaitsiera adierazgarria erakusten du. Gutxi gorabehera, 11.000 enpresek itxi egin dute 2009 eta 2010 urteren bitartean; hau da, enpresen % 6 galdu dira. Krisi orokorreko egoera honek neurri txikiagoan eragin du kultura-ehundura; jaitsiera txikiagoa izan da (% 4) eta 261 enpresa galdu dira.

Ondorioz, bi datu azpimarra daitezke: alde batetik, kultura-sektoreak ez du adierazgarritasunik galdu jarduera ekonomiko guztiekiko eta % 3,6ren inguruan mantendu da aztertutako epean zehar. Bestalde, kultura-jardueretan diharduten enpresa kopuruaren jaitsiera itxiera guztien % 2,4 da.

### 8. irudia. Kultura-enpresen adierazleen bilakaera. 2009-2010

Adierazleak	2009	2010	% aldakuntza
Enpresak, guztira (EAEko sektore ekonomiko guztiak)	178.062	167.270	-6,1
Kultura-eremuko enpresak, guztira	6.350	6.089	-4,1
Kultura-eremuko enpresen %-a enpresen guztirakoarekiko	3,6	3,6	0
Enpresak/ 100.000 biztanle ratioa	291	281	-3,4

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.

**Krisiaren eragin ezberdina EAEko kultura eremuko enpresa ehunduran, Araban eta Gipuzkoan Bizkaian baino garrantzi handiagoa duelarik.**

Lurraldeen arabera, Bizkaian kultura-enpresa gehiago daude, jarduera horietan diharduten 10 enpresetatik 5 Lurralde horretan kokatzen baitira. Enpresa kopurua murriztu bada ere, jaitsiera hori arinagoa izan da (-% 2,9) gainerako Lurraldeetan baino.

Gipuzkoak portzentaje azpimarragarria adierazten du ere EAEn (% 37,7), baina enpresa gehiago galdu dira (-% 4,2); 100 enpresa gutxiago daude, hain zuzen.

Arabak, ikuspuntu kuantitatibotik adierazgarritasun txikiagoa duen ehundurari erreparatuz, krisiaren eragina neurri handiagoan pairatu du, kultura-enpresen % 9 baino gehiago galduz.

## 9. irudia. Kultura-enpresa kopuruaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera. 2009-2010

Lurralde Historikoa	2009		2010		% aldakuntza
	Balio absolutua	%	Balio absolutua	%	
Araba	736	11,6	668	11,0	-9,2
Bizkaia	3.221	50,7	3.128	51,4	-2,9
Gipuzkoa	2.393	37,7	2.293	37,7	-4,2
<b>EAE</b>	<b>6.350</b>	<b>100,0</b>	<b>6.089</b>	<b>100,0</b>	<b>-4,1</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.

### Enpresen galera kultura-produktuen merkataritzan eta Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jardueretan eman da bereziki.

EAEn, kultura eremuko enpresek lau esparru nagusietan bildu ohi dituzte beraien jarduerak: Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jarduerak (% 31,1), Kultura-produktuen merkataritza (% 23,6), Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa (% 15,5) eta Zinemako, bideoko, irratiko eta telebista saioetako jarduerak eta musika edizioak (% 11,8).

Azken bi urteotan krisiak nabarmenki eragin du kultura-produktuen merkataritza. 2009 eta 2010aren artean itxi duten 261 kultura-enpresetatik, jarduera horretan sektoreko enpresa kopuru osoaren erdia baino gehiago suntsituak izan dira, zehazki, 133 enpresa gutxiago daude 2010ean (-% 8,5).

Baita, garrantzitsua izan da 93 enpresen desagerpena (-% 4,7) Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jardueretan. Gainera, kontutan hartu behar da bi jarduera horiek EAeko kultura eremuko enpresa-ehunduraren kultura-jarduera nagusiak direla.

Krisiari hobeto eutsi dioten eta, are gehiago, ekintzaile berri kopuru txikia bereganatu duten enpresak Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze jarduera batzuetan dihardutenak izan dira (359 enpresa 2010ean, 2009an baino 10 gehiago), eta baita Zinemako, bideoko, irratiko eta telebista saioetako eta musika edizioeko jardueretan dihardutenak ere (716 enpresa).

**10. irudia.** Kultura-eremuko jarduera ekonomikoak dituzten enpresen banaketaren bilakaera jarduera nagusia eta guztirakoaren gaineko %-aren arabera. 2009-2010

Jarduera ekonomikoa	2009		2010		% aldakuntza
	Balio absolutua	%	Balio absolutua	%	
Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jarduerak	1.986	31,3	1.893	31,1	-4,7
Kultura-produktuen merkataritza	1.567	24,7	1.434	23,6	-8,5
Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	967	15,2	946	15,5	-2,2
Zinemako, bideoak, irratiko eta telebista saioetako jarduerak eta musika edizioak	711	11,2	716	11,8	0,7
Argazkilaritzako jarduerak	484	7,6	474	7,8	-2,1
Liburu eta egunkari argitalpena eta beste argitaratze jarduerak batzuk	349	5,5	359	5,9	2,9
Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduerak batzuk	145	2,3	142	2,3	-2,1
Berri agentzien jarduerak	128	2,0	110	1,8	-14,1
Soinu eta irudiko euskarri eta aparatuak eta musika tresnak egitea	13	0,2	15	0,2	15,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.350</b>	<b>100,0</b>	<b>6.089</b>	<b>100,0</b>	<b>-4,1</b>

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT. Jarduera ekonomikoen sailkapena EJSN-2009-ren arabera.

**Kultura-establezimenduen galera askoz ere txikiagoa izan da jardueren guztizkoarena baino.**

2010ean, kultura eremuko 6.760 establezimendu daude erregistratuta EJGID-n, hau da, establezimendu bat baino pixka bat gehiago enpresa bakoitzeko (zehazki, 1,11). Enpresa bakoitzeko establezimendu kopuru hori jarduera ekonomikoen guztizkoari dagokion ratioaren antzekoa da (1,14 establezimendu enpresa bakoitzeko).

Orokorrean, 304 establezimendu galdu dira epe horretan zehar; hau da, jaitsiera % 4 baino handiagoa izan da, jaitsiera hori enpresen guztizkoari dagokiona baino txikiagoa bada ere (% 5,5).

**11. irudia.** Kultura-establezimenduen adierazleen bilakaera. 2009-2010

Adierazleak	2009	2010	% aldakuntza
Establezimenduak, guztira (EAEko sektore ekonomiko guztiak)	202.093	191.057	-5,5
Kultura-eremuko establezimenduak, guztira	7.064	6.760	-4,3
Kultura-eremuko establezimenduen %-a establezimenduen guztirakoarekiko	3,5	3,54	0,04
Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (sektore guztiak)	1,13	1,14	--
Establezimendu kop./enpresa kop. ratioa (kultura-eremua)	1,11	1,11	--

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda, EUSTAT.



**Kultura-enpleguaren jaitsiera enpresa-kopuruarena baino txikiagoa da.**

2010ean 25.500 enplegu daude kultura-enpresetan, hau da, EAeko enplegu osoaren % 2,7. 2009 eta 2010aren bitartean 400 enplegu galdu dira kultura-enpresetan, hau da, % 1,5eko galera (enpresa kopuruaren galera % 4,1 da); aldiz, gainerako enpleguen kasuan % 0,7ko hazkundera eman da.


**12. irudia.** Enpleguaren bilakaera kultura enpresetan eta gainerako jarduera ekonomikoetan. 2009-2010

Adierazleak	2009	2010	% aldakuntza
Kultura-eremuko enpleguak, guztira (Urteko batezbestekoa)	25.900	25.500	-1,5
Enpleguak, guztira (sektore guztiak)	932.000	938.800	0,7
Kultura-eremuko enpleguaren %-a/gainerako jarduerak	2,8	2,7	--

Iturria: Kultura-enplegua: BAI-ren ustiapena, urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoko datuak eta urteko batezbesteko datuak, Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa.


### 3. ADIERAZLEEN SINTESIA

Adierazleen laburpena, beste iturri eta eragiketa estatistikoetatik abiatuta (EJGID-EUSTAT eta Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioaren BAI)



**CAE**

**Kultura-enpresen kopuruaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera. 2009-2010**



**CAE**

**Enpleguaren bilakaera kultura-enpresetan eta gainerako jarduera ekonomikoetan. 2008-2010**

Enplegua		2008	2009	2008-10	2009-10
<b>Euskal Herria</b>					
■ Kultura-eremuko enpleguak, guztira	<b>2010</b>	26.900	25.900	▼% -5,2	▼% -1,5
■ Enpleguak, guztira (sektore guztiak)		995.300	932.000	▼% -5,7	▲% 0,7
■ Kultura-eremuko enpleguaren %-a/gainerako jarduerak		%2,7	%2,8	--	--
<b>Estatua guztira</b>					
■ Kultura-eremuko enpleguak, guztira		561.900	537.000	▼% -10,4	▼% -6,2
■ Enpleguak, guztira (sektore guztiak)		20.257.600	18.888.000	▼% -8,9	▼% -2,3
■ Kultura-eremuko enpleguaren %-a/gainerako jarduerak		%2,8	%2,8	--	--

## 4. ERANSKINA. OHAR METODOLOGIKOAK

### ERABILITAKO INFORMAZIO ITURRIAK

Oraingo txostena egiteko ondorengo informazio-iturriak erabili dira:

- Eustat: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID)
- Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa: Kultura-enpleguaren Estatistika

#### A.- EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA (EUSTAT)

##### Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID)

Gidazerrendak establezimendu eta enpresa guztiei buruzko informazioa biltzen du, EAEn jarduera ekonomikoak egikaritzen dituzten unitateak diren neurrian; oinarrizko egiturazko informazioa ematen du jarduera ekonomikoaren sektoreen gainean eta erreferentzia-markoa da zentsuak eta inkestak egiteko; erkidegoko establezimenduetan lanean ari den biztanleriaren azterketa ere ahalbidetzen du. Gaur egun ez dira sartzen lehen sektoreko jarduerak, etxerako langileak enplegatzen dituzten familiak eta lurraldez kanpoko erakundeak.

EUSTAT-ek halaxe definitzen du enpresa: *Establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira Euskal AEn kokatutako establezimendu batean edo batzuetan.*

*EUSTAT-ek halaxe definitzen du establezimendua: Ondasun edo zerbitzuak produzitzen dituen unitatea, titular edo enpresa baten ardurapean, kokapen topografiko jakin batean dagoen toki, lokal edo elkarri lotutako lokal-multzo batean, ekonomia- edo gizarte-jarduera bat edo gehiago egiten duena. Bere ezaugarriengatik jarduera horiek leku finko batean egiten ez badira (garraioa, eraikuntza, alokairuak, garbiketa, arte-jarduerak, eta abar), establezimendua jarduera horiek antolatu edo koordinatzen diren lekua da. Besterik ezean, enpresa edo titularraren baltzu-egoitza edo legezko bizilekua ere izan daiteke.*

Oraingo txostenean 2009 eta 2010 urteetako informazioa eskaintzen da.

Kultura-eremua mugatzerakoan Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioak aztertutako jarduerak hartu dira kontutan.

<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jarduerak:</b>
7410	Diseinu espezializatuko jarduerak
9001	Diseinu espezializatuko jarduerak
9002	Arte eszenikoetako jarduera lagungarriak
9003	Sormen artistikoa eta literarioa
9004	Ekitaldi aretoen kudeaketa
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Kultura-produktuen merkataritza</b>
4743	Audio eta bideo ekipoen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4761	Liburuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4762	Egunkarien eta papergintzako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4763	Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
7722	Bideo zinten eta diskoen alokairua
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreprodukzioa</b>
1811	Egunkariak inprimatzea
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk
1813	Aurre-inprimaketako eta euskarriak prestatzeko zerbitzuak
1814	Koadernaketa eta horrekin zerikusia duten zerbitzuak
182	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Zinemako, bideo, irratiko eta telebista saioetako jarduerak eta musika edizioak</b>
591	Zinemako, bideo eta telebista saioetako jarduerak
592	Soinua grabatzeko eta musika argitaratzeko jarduerak
601	Irrati-difusioko jarduerak
602	Telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Argazkilaritzako jarduerak</b>
742	Argazkilaritzako jarduerak
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze jarduera batzuk</b>
581	Liburuen eta egunkarien argitalpena eta beste argitaratze jarduera batzuk
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduera batzuk</b>
910	Liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduera batzuk
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Berri agentzien jarduerak</b>
6391	Berri agentzien jarduerak
<b>EJSN 2009 kodea</b>	<b>Soinu eta irudiko euskarri eta aparatuak eta musika tresnak egitea</b>
264	Kontsumoko produktu elektronikoen fabrikazioa
268	Euskarri magnetiko eta optikoen fabrikazioa
322	Musika tresnen fabrikazioa

## B.- HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLA MINISTERIOA

**Kultura-enpleguaren Estatistika**

Biztanleria Aktiboaren Inkestako kultura eremuko jarduera ekonomiko eta okupazio zehatzen ustiapen espezifikuari esker lortutako kultura-enpleguari buruzko informazioa eskaintzen du eragiketa honek. Estatistikako Institutu Nazionalak egindako Estatistika Plan Nazionalaren barnean dagoen eragiketa estatistiko hori hiruhilekoan behin egin ohi den lagin-ikerketa da; lurralde nazional osoko familia-etxebizitzetan bizi ohi diren biztanleei zuzenduta dago eta helburua biztanleria horrek lan-merkatuarekiko dituen ezaugarriak ezagutzea da.

Ministerioak halaxe definitzen du enplegua: *kultura-lanbidea, ekonomia osoan edota kultura sektoreetan edozein enplegu betetzen duen 16 urtetik gorako langile taldea da. Kultura dimentsioa duten profesional jarduerak, adibidez idazleak, artistak, artxibozainak, liburuzainak eta abar, kultura-lanbidetzat hartu dira. Jarduera guzti hauek aurreikusi dira enplegu-emailearen jarduera nagusia kontuan hartu gabe. Era berean, kultura-jarduerak argitalpen jarduerak, liburutegiak, artxiboak, museoak eta bestelako kultura instalazioetako jarduerak, zinema, bideo, irrati eta telebistako jarduerak eta arte eta ikuskizunetako jarduerak, besteak beste, barne biltzen dituzte. Jarduera hauetan enplegu osoa aurreikusten da, lanbidea (artistiko, tekniko, administrazio edo zuzendaritzakoa) kontuan hartu gabe denak baitira behar-beharrezkoak kultura-industrien jardun egokirako.*

Oraingo txostenean 2008, 2009 eta 2010 urteetako informazioa eskaintzen da.

Kultura-eremua mugatzerakoan kontutan hartu diren jarduera ekonomikoak eta lanbideak Enpresen estatistikan kontutan hartu diren berberak izan dira. Lanbideei dagokienez, ondorengo hauek hartu dira kontutan (LSN-94-ren arabera):

LSN-94	Diseinu, sormen, arte eta ekitaldi jarduerak:
251	Sormeneko eta interpretazioko idazleak eta artistak
252	Artxibozainak, liburuzainak eta berdinetsitako profesionalak
292	Artxiboko, liburutegiko eta berdinetsitako arloetako laguntzaileak
354	Arteko, ikuskizunetako eta kiroleko profesionalak
	bestelako edozein lanbide, kultura-jarduera ekonomikoa baldin bada

Ez da posiblea izan banaketa maila handiagoa eskatu luketen hainbat kultura-jarduera jasotzea, adibidez: Kultura-produktuen handizkako eta txikizkako salerosketa eta Argazkilaritzako jarduerak. Bestalde, «Arte, ikuskizun eta kiroleko profesionalak», 35.4. epigrafea osorik jaso da, nahiz eta atal honetan kultura-eremutik kanpoko langile talde bat egon.